

**Bakearen eta duintasunaren bila doazen milaka eta milaka pertsona horien exodoak, zalantzan jartzen dituzte geure kontzientziak, eta ekintzetara pasatzeko deia egiten digute.**

-----

Errefuxiatuen krisia deiturikoaren arrazoia da, funtsean, pertsona horien herrialdeetan giza eskubide oinarritzko eta ezinbestekoenak ez direla errespetatzen, hala nola bizitzarako eskubidea, norberaren osotasun fisikorako eskubidea, etab.. Eta krisi horren aurrean, sindiko eta tokiko defentsoreen Foroko kideok geure hausnarketa eta konpromisoa azaldu nahi dugu, nazio mailan nahiz nazioartean giza eskubideen alde egiten diren aldarrikapenetatik ekintzetara pasa gaitzen exijitzeko, giza duintasunaren defentsa ikusgai eginez, oztopo politikoak, sozialak, juridikoak eta erlijiosoak gaindituz.

Europak, eta batik bat Europar Batasunak, bakearen, askatasunaren eta segurtasunaren defentsan gizarte aitzindaria den aldetik, politika bateratuak bultzatu behar ditu, gure herrialdeetara gudaren izuaz ihesi datozen pertsona guztien duintasuna eta eskubideak defendatuko dituzten politikak, hain zuzen.

Tamalez, estatu mailako nahiz nazioarteko erakundeak gerra-gatazkek ekiditeko gai izan ez direlarik, eta nazioarteko segurtasuna indartuko duen elkartasun sistema eraginkor bat sustatzeko helburuan kale egin dutelarik, ez administrazioek, ez eta herritarrok ere, ezin dugu egonean egon, ezer egin gabe, justizia eta giza eskubideak sustatuko baditugu. Gure segurtasun xumeak utzi eta geure mugak ireki behar ditugu, geure etxe eta besoak zabaldu behar dizkiegu, elkartasunez, errepresiotik, intolerantziatik, gose eta gerratik ihesi doazen horiei.

Bakearen eta duintasunaren bila doazen milaka eta milaka pertsona horien exodoak, zalantzan jartzen dituzte geure kontzientziak, eta ekintzetara pasatzeko deia egiten digute, diplomaziarik gabe, zuhurtzia ustelik gabe, giza duintasuna eta libertatea gorroto dituzten zenbait pertsona eta erakunderen fanatismo terroristak gure gizartean eragiten duen alarmari gailentzen utzi gabe.

Ohiz kanpoko arazoek, bitarteko eta soluzio apartekoak eskatzen dituzte. Horregatik, sindiko eta udal mailako defentsoreek, FòrumSD erakundearen bat eginik, gure hitza entzunarazi nahi dugu, gure administrazioei eta erakunde guztiei, nahi den maila eta kategoriakoak direla ere, apaltasunez eskatu nahi diegu behar diren premiazko neurriak har ditzaten eta behar diren bitartekoak jarri, gerra eta intolerantziatik ihesi datozenen oinazea arintzeko eta elkartasunez abegi egiteko.

Aldi berean, goraipatu nahi ditugu gizarte zibileko hainbat sektore, erakunde eta bestelako esparruetatik errefuxiatuen bizimodu latza duinagoa egiteko martxan jarri diren elkartasunezko ekimen guztiak, elikagaiak eskainiz, osasungintza edota etxebizitza eskura jarritz.

Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 67. urteurrena ospatzen dugun honetan, ezinbestekoa da geure herri eta hirietan errealitate bilakatzea giza duintasunari lotuta doazen eskubideok. Denon artean, posible egin behar dugu arau nagusiek eta nazioarteko hitzarmenek aldarrikatzen duten hori egia bihurtzea, eta horretarako ezinbestekoa da giza-familia osoaren parte hartzea, oztopo ez direlarik ideologiak, mugak, kulturak, hizkuntzak, koloreak zein erlijioak.

Ramón Llorente, FòrumSD, Kataluniako sindiko eta tokiko defentsoreen Foroko Lehendakaria eta Gironako herritarren defendatzailea, eta Joan Barrera, Cornellà de Llobregateko herritarren defendatzailea, honako beste sindiko eta tokiko defentsoreen ordezkartzan dihardutela: Arenys de Mar, Argentona, Badalona, Barcelona, Cambrils, Cornellà, Cruïlles-Monells-Sant Sadurní de l'Heura, Figueres, Gavà, Girona, Igualada, La Seu d'Urgell, L'Escala, Lleida, Lloret de Mar, Préstamo, Mataró, Mollet del Vallès, Palafrugell, Palamós, Reos, Ripollet, Sabadell, Salto, Sant Boi de Llobregat, Sant Cugat del Vallès, Sant Feliu de Guíxols, Sant Feliu de Llobregat, Sant Jaume d'Enveja, Santa Coloma de Gramenet, Terrassa, Tortosa, Viladecans, Vilafranca del Penedès, Vilanova del Vallès, Vilanova i la Geltrú, y Vilassar de Dalt, eta beste honako sindiko elkartuen ordezkartzan: Gandia, Palma de Mallorca, Paterna, Segovia, Vigo eta Vitoria-Gasteiz.

2015eko abenduak 10

**El éxodo masivo y el dolor de miles y miles de personas que anhelan la paz y el reconocimiento de su dignidad, cuestiona nuestras conciencias y reclama actuaciones y hechos.**

-----

El Foro de síndicos, sindicadas, defensores y defensoras locales, ante la llamada crisis de los refugiados, originada fundamentalmente por la carencia de respeto, en sus países de origen, a los derechos humanos más básicos e indispensables como es el derecho a la vida y a la integridad física, queremos aportar nuestra reflexión y nuestro compromiso para exigir que de las proclamas nacionales e internacionales a favor de los derechos humanos se pase a los hechos, haciendo visible la defensa de la dignidad humana, superando las barreras políticas, sociales, jurídicas o religiosas.

Europa, y especialmente la Unión Europea, como sociedad líder en la defensa de la paz, la libertad, la seguridad, el progreso y la democracia, debe continuar fomentando políticas comunes que tiendan a hacer realidad la protección de la dignidad humana, y los derechos que le son inherentes, de todas las personas que huyendo del horror de la guerra y de la persecución en sus países llegan a nuestras fronteras.

Lamentablemente, cuando las organizaciones internacionales y las diversas instancias políticas de los estados, sea a nivel mundial o regional, no han sido capaces de impedir los conflictos bélicos, ni han promovido un eficaz sistema de cooperación solidaria que fortalezca la seguridad internacional, ni los ciudadanos, ni las administraciones podemos, desde el fomento de la justicia y de los derechos humanos, permanecer impasibles o indiferentes. Hace falta que dejemos nuestras pequeñas seguridades y que abramos nuestras fronteras, nuestras casas y nuestros brazos, solidariamente, a aquellas personas que intentan huir de la represión, la intolerancia, el hambre y la guerra.

El éxodo masivo y el dolor de miles y miles de personas que anhelan la paz y el reconocimiento de su dignidad, cuestiona nuestras conciencias y reclama actuaciones y hechos urgentemente, sin diplomacias ni falsas prudencias, a pesar de la alarma que crean en nuestra sociedad occidental el fanatismo terrorista de algunas personas y organizaciones que desprecian la dignidad humana y odian la libertad.

Problemas extraordinarios, requieren medios y soluciones extraordinarias, y la voz de

los síndicos y defensores municipales, puesta en común desde el FòrumSD, se quiere hacer sentir, en estos dolorosos momentos, para pedir humildemente a nuestras administraciones y a todas las instituciones, de cualquier nivel y categoría, la adopción de medidas urgentes y la dedicación de medios necesarios para aminorar el dolor de los que llegan huyendo de la guerra y la intolerancia y acogerlos solidariamente.

Al mismo tiempo, también queremos poner de relieve y destacar todas las iniciativas solidarias que desde diferentes sectores, organizaciones y otros ámbitos de la sociedad civil aportan ideas y recursos, y ofrecen medios para dignificar la difícil vida de los refugiados en aspectos imprescindibles como la alimentación, la sanidad o la vivienda.

Ahora que conmemoraremos el 67 aniversario de la Declaración Universal de los Derechos Humanos, es imprescindible que estos derechos, inherentes a la dignidad humana, sean una realidad en nuestros pueblos y ciudades. Entre todos, debemos hacer posible que lo que proclaman las grandes normas y tratados internacionales se haga realidad, sin olvidar nuestra necesaria contribución para que esto sea posible entre toda la familia humana, prescindiendo de ideologías, fronteras, culturas, lenguas, colores o religiones.

Ramón Llorente, presidente del FòrumSD, Foro de síndicos, síndicas, defensores y defensoras locales de Cataluña y defensor de la ciudadanía de Girona y Joan Barrera, síndico de agravios de Cornellà de Llobregat. En representación de los síndicos, síndicas, defensores y defensoras locales de: Arenys de Mar, Argentona, Badalona, Barcelona, Cambrils, Cornellà, Cruïlles-Monells-Sant Sadurní de l'Heura, Figueres, Gavà, Girona, Igualada, La Seu d'Urgell, L'Escala, Lleida, Lloret de Mar, Préstamo, Mataró, Mollet del Vallès, Palafrugell, Palamós, Reos, Ripollet, Sabadell, Salto, Sant Boi de Llobregat, Sant Cugat del Vallès, Sant Feliu de Guíxols, Sant Feliu de Llobregat, Sant Jaume d'Enveja, Santa Coloma de Gramenet, Terrassa, Tortosa, Viladecans, Vilafranca del Penedès, Vilanova del Vallès, Vilanova i la Geltrú, y Vilassar de Dalt, y síndicos agregados de: Gandia, Palma de Mallorca, Paterna, Segovia, Vigo y Vitoria-Gasteiz.

10 de diciembre de 2015